


Ahozko gaitasun komunikatiboa lantzen

LHn eta DBHn
testu motak lantzeko jarduerak egokitzea



Hizkuntza-jolasak Haur Hezkuntzan. 2017-2018 ikasturtea.

Dokumentu honetan Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan ikasgelan euskararen erabilera eta ahozko gaitasun komunikatiboa lantzeko baliagarri izan daitekeen bide bat proposatzen da; jarduera edo saioaren dinamika egokitzean oinarrituta.

Ez da gida bat; irakasleentzat baliagarriak eta praktikoak izan daitezkeen jarduerak proposatzeko ahalegina egin da eta bakoitzaren esku egongo da norberaren eta taldearen ezaugarrietara jarduerak moldatzea (adina, jardueraren konplexutasuna, eman nahi zaion denbora...)

Dokumentu hau 2107-2018 ikasturtera begira eguneratu da. Ikasturte honetan ebeteko lantaldea osatzen dugun kideen arteko lana izan da: Itziar Larzabal Bengoetxea, Arrate Gisasola Izeta, Lexuri Sanz Ramon eta Iñaki Eizmendi Arsuaga.

Proposamenak osatu eta garatzen ditugun neurrian, dokumentua ere eguneratuko da.

Kontuan izan tresna hauek beste dokumentu batean jasotzen diren irizpide eta oinarri batzuetatik abiatuz landu direla:

-Erabileraren ontzia bete LH eta DBH.

Aurkibidea

Abiapuntua.....	5
Gaitasun eta erabilera helburuak.....	5
Irakaslearen jokabidea: Hezitzaile Berritsuak.....	6
Jardueraren ezaugarriak eta uneak.....	7
Testu motak lantzeko jarduerak	11
1.- Errelatoa	11
1.1.- Batak besteari.....	11
1.2.- Galderak erantzuten	12
1.3.- Zer gertatu zen?	12
1.4.- Kale kondaira	13
2.- Narrazioa	15
2.1.- Ipuina egokitzen.....	15
2.2.- Ametsak asmatzen	17
2.3.- Narrazioari galderak eta ekarpenak egiten	18
2.4.- Beste taldeak ipuina asma dezan.....	19
3.- Deskribapena.....	21
3.1.- Nor da pertsonaia?	21
3.2.- Irudi ezkutua I.....	22
3.3.- Irudi ezkutua II.....	23
3.4.- Abestiak aukeratzen.....	23
3.5.- Zer dago argazkien atzean?.....	24
3.6.- Definizioa-hitza-definizioa	25
4.- Azalpena.....	27
4.1.- Azalpen katea.....	27
4.2.- Azalpena taldeari:.....	29
4.3.- Azalpena zuzendariari eta lagunei.....	29

5.- Argudiaketa	31
5.1.- Gaiak aukeratzen.....	31
5.2.- Telebistako debatea prestatzen.....	32
5.3.- Telebistako debatea	33
5.4.- Babelako itsasontzia.....	33
5.5.- Animaliak edo janaria aukeratzen:.....	37
5.6.- Zergatik geratu zarete etxean?.....	38
5.7.- Argudio lehiaketa	39
6.- Instrukzioak.....	41
6.1.- Jolasak moldatzen	41
6.2.- Konfiantza jolasak	42
6.3- Hitz debekatuak edo tabu jolasa:	43

Abiapuntua

Dokumentu honetan ikasleen euskarazko gaitasun komunikatiboa lantzerantz begira zenbait aholku eta hainbat adibide proposatzen dira. Irakasleentzat tresna lagungarri bat izatea bilatzen da: Saio batean gaitasun komunikatiboak lantzen saiatzen naizenean zer hartu kontuan? Nola egokitu jarduera gaitasun komunikatiboak lantzeko egokia izan dadin?

Gaitasun eta erabilera helburuak

Gaitasun komunikatiboak. Hizkuntza batean gaitasun komunikatiboak lantzen direnean bost arlo garatzen dira: ulermena, mintzamina, interakzioa, idazmina eta irakurmina. Ahozko jardunarekin lotura erabat zuzena dutenak lehenengo hirurak dira. Beraz, hiru horiek hartu dira kontuan proposamenak lantzerakoan.

Gaitasunak testu moten arabera. Ulermina, mintzamina eta interakzioa landu nahi ditugu testu mota ezberdinetan. Horien sailkapena Europako Erreferentzia Markoak ematen du. Bost hartu dira kontuan: errelatoa, narrazioa, deskribapena, azalpena, argudia keta, instrukzioak. Testu mota horietako bakoitzean ikasleek ulermen maila ona izatea nahi dugu, testu mota horietan mintzatzeko gai izatea eta interakziorako gai izatea ere bai.

Gutxieneko erabilera helburua. Ahozko gaitasun komunikatiboak garatzeko ikasleek euskara erabili behar dute, ez dago beste biderik. Horri begira, erabilera erraztuko duten guneak sortu behar dira (gelan eta gelaz kanpo) eta lortu beharko genuke ikasleentzat hainbat harreman eta egoeretan euskaraz aritzea normala eta naturala izatea.

Testuinguruaren arabera egoera eta harreman horiek ez dira berberak izango: testuinguru euskaldunetan harreman guztiak izan daitezke horrela baina testuinguru erdaldunagotan askoz zailagoa da hori. Erabilera helburuak zein izan daitezkeen eta hor eragiteko prozedura proposamena *Erabileraren ontzia bete LH eta DBH* dokumentuan aurkezten dira:

- Irakasleekin harremana euskaraz izatea
- Ikasleen artean euskaraz egitea irakaslea beraiekin ari denean (elkarrizketaren parte denean eta elkarrizketa bideratu dezakenean)
- Ikasleen artean euskaraz egitea beraien kabuz ari direnean. Honen barruan bi aukera: egoera babestuan (irakasleen presentzia dagoenean) edota jardun librean.

Irakaslearen jokabidea: Hezitzaile Berritsuak

Irakasleon jarreraz ari gara. Helburu batzuk ditugu eta helburu horretara begira klabe nagusietakoa irakasleon jarrera da.

Proposamena: Hezitzaile Berritsuak izatea. Zer da Hezitzaile Berritsua izatea? Gaitasun komunikatiboak eta euskararen erabilera lantzerantz begira egoera eta elkarrizketa asko sortzen edota bideratzen dituen irakaslea. Eta horretan ari denean:

- Bere taldera egokitutako erabilera helburua zein den argi duena.
- Ikasleei ahalegina eskatzen diena mezu egokiak erabiliz.
- Egoerak baliatzen dituen banakoekin elkarrizketak sortzeko eta bereziki beraien arteko elkarrizketetan eragiteko.
- Egoerak baliatzeko eta prozedura eraginkorrak erabiltzeko jarduerak egokitzen dituen: ahozkoari lekua eginaz.
- Ahalegina baloratu eta errefortzu positiboak ematen dizkiena.

Gai honen inguruan irakasleei begirako prozedura proposamena beste dokumentu honetan aurki daiteke: *Erabileraren ontzia bete LH eta DBH.*

Jardueraren ezaugarriak eta uneak

Ahozko gaitasun komunikatiboa lantzea helburu duen saio bat prestatzerakoan, ezaugarri hauek izan ditzan zaintzea egokia izan daiteke:

- Aurkeztea eta ahalegina eskatzea
- Eredua ematea
- Beraien artean hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa izatea
- Beraien artean elkarrizketetan eragitea: **kanpo, parte, zentro**
- Banakoekin elkarrizketa sortzeko ere baliatzea

Aurkeztea eta ahalegina eskatzea:

Ahozko gaitasuna lantzeko jardura batekin hasi behar dugunean, lehen urratsa ikasleei gaia aurkeztea eta dinamika azaltzea izango da.

Batetik, erabileraren helburua gogoraraziko diegu. Argi izan behar dute saio horretan euskara asko erabiltzea nahi dugula, horretan lagunduko diegula, baina ahalegina ere eskatzen diegula.

Bestetik, gaitasunari dagokion helburua aipatzea ere egokia izan daiteke (deskripzioa den, narrazioa den...). Ez horrenbeste testu mota horrek dituen ezaugarriak azaltzeko baizik eta ikasleek helburu zehatz bat dagoela jakin dezaten.

Noski, dinamika bera azalduko diegu. Zein urrats dituen, nola hasiko garen. Taldeak egin behar badira nola egingo diren, eta abar.

Eredua ematea:

Hainbatetan beharrezkoa izango da eredu ematea. Testu mota bat landu nahi dugu baina gerta daiteke gure ikasleek proposatzen diegun gai horretan eta testu mota horretan inoiz ez eredurik jaso izana eta euskarazko produkzioarako gaitasunik ez izatea.

Eredua eskaintzeko aukera ezberdinak ditugu:

- Etxean aurre-lan bat egitea ikasleek (testu bat irakurtzea, interneten informazio osagarria bilatzea, bideo bat ikustea, idatziz prestatzea...). Aurre-lan hori tarteka egokia izan daiteke baina beti erabiltzea ere ez da egokia: astuna izan daiteke, beti prozedura berdinak erabiltzera eraman ditzake...
- Saioetan bertan eredia eskaintzea: irakasleak azalpen bat ematea, bideo bat jartzea, testu bat irakurtzeko eskatzea... Dinamikaren lehen zatia eredia ematea izan daiteke hainbat saioetan.

Beraien artean hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa izatea

Jarduera gidatua edo bideratua den neurrian, hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa izatea lor dezakegu. Modu asko daude horretarako eta dokumentu honetako adibideak horri begirakoak dira. Egoera hauek sortzera begira bikoteka edo taldeka lanean jartzeak asko errazten du. Beraien artean hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa bada, ahozkoa erdian jartzea lortu da eta irakaslearentzat errazagoa izango da eragitea eta bai erabilera baita gaitasun helburuak lortzea ere.

Beraien arteko elkarrizketetan eragitea: kanpo, parte, zentro

Jarduera egokitu eta hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa izatea bideratu ondoren, irakasleak hiru modu ezberdinetara jo dezake:

- Elkarrizketatik kanpo: ikasleak beraien kabuz ari dira taldeka lanean. Irakaslearen presentzia agerikoa da, baina ez da elkarrizketetan sartzen.
- Elkarrizketaren parte: ikasleak lanean ari dira eta irakaslea taldeetara hurbiltzen da eta laguntzeko asmoarekin elkarrizketetan sartzen da. Elkarrizketaren parte bihurtzen da.
- Elkarrizketaren zentro: ikasle batek beste bati zerbait azaldu behar dio, baina irakaslea bertan dago eta elkarrizketa hasieratik amaierara bideratu dezake.

Irakasleak hiru modu hauek erabili behar ditu eragiterako garaian:

- Kanpo eta parte aritzea: bikoteka edo taldeka lanean jarritakoan, eta hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa izateko jarduera egokitu ondoren, irakasleak kanpo eta parte ideiarekin jokatu du. Bi aukera ditut:

helburua bere eraginez ikasleen artean euskaraz egitea bada, taldez talde ibiliko da parte bihurtuz eta unean dagoen taldeko kideen artean euskaraz egin dezaten bideratuz. Helburua ikasleek beraien kabuz euskara mantentzea bada, kanpo geratuko da eta elkarrizketen parte bihurtuko da gaztelaniarako joera ikusten badu. Oso garrantzitsua da helburua zein den argi izatea.

- Zentro izatea: saio edo jarduera berean, irakasleak ikasleen arteko elkarrizketak sustatuko ditu baina bera zentro den egoerak bilatuz. Adibidez: ikasle bati erdira ateratzeko esan eta besteei galderak egiteko eskatuz. Berari erantzun behar diote eta ez irakasleari, baina irakasleak elkarrizketa bideratu dezake.

Erabilera edo zuzentasuna?

- Kanpo, parte eta zentro ideiarekin jokatzuz, garrantzia erabilerari noiz eman eta zuzentasuna noiz landu argiago ikus daiteke. Hau da: kanpo-parte moduan ibiltzean, batez ere erabilerari eman behar litzaioke garrantzia; gure eraginez bada ere beraien artean euskaraz egitea bilatzen dugu eta horretan ari direnean gustura aritzea. Zentro garen egoerak sortzean, berriz, zuzentasunari garrantzia handiagoa emateko aukera dugu, baita tonuari, gorputz espresioari eta abar ere.

Argi izan behar dugu: jarduera zenbat eta gehiagotan egokitu, eta zenbat eta arlo gehiagotan egin (matematikak, natur zientziak, gorputz hezkuntza, musika...), orduan eta gehiago laguntzen diegula bai euskararen erabilerarekin baita ahazko gaitasun komunikatiboekin ere.

Banakoekin elkarrizketak sortzera begira

Jarduera egokitzea beraien arteko harremanetan eragitera begirako tresna eraginkorra izan daiteke eta batez ere horretara begira erabili behar genituzke. Baina banakoekin elkarrizketa sortzeko ere une oso aproposak izan daitezke. Banakoengan eragiteko ere erabil nahi baditugu, baloratu beharko dugu zein euskara maila duten, eta hortik abiatuz zein galdera eredu erabiltzea komeni zaigun. Guztiekin ere jokatu dezakegu:

- Galdera itxia. *Ondo pasa duzu? Bai edo ez.*
- Galdera itxia aukerak ematen. *Zer nahiago duzu mendia edo hondartza? Mendia edo hondartza.*
- Galdera itxia baina erantzun luzea eskatuz. *Arratsaldean etxean geldituko zara edo kalera aterako zara?*
- Erantzunari jarraituz, informazioa zabaldu. *Kalera ateratzen bazara non ibiliko zara?... Eta ondoren zer egingo duzu?...*

Eta horretan ari garenean...

- Mimika erabil dezakegu. *Gosea daukazu? (eta tripa ukitu edo jatearen keinua egin)*
- Guk modu ezberdinetara errepikatu eredu ondo eskaintzeko. *Nik nahiago dut mendia baina zuk zer nahiago duzu mendia edo hondartza? Nik nahiago dut mendia. Zuk nik bezala nahiago duzu mendia?*
- Erritmoarekin eta tonuarekin jolastu. Erantzutea nahi dugun zati hori mantsoago edo ozenago esanez adierazi dezakegu.... *NIK NA-HI-A-GO DUT MEN-DIA. Baina zuk zer nahiago duzu mendia edo hondartza? NIK NA-HI-A-GO DUT MEN-DIA. Zuk nik bezala nahiago duzu mendia?*
- ...

Testu motak lantzeko jarduerak

1.- Errelatoa

1.1.- Batak besteari

- Binaka jarriko ditugu
- Batak besteari oporretan oso ondo pasa zuen egoera bat azalduko dio. Bakoitzak bi minutu ditu kontatzeko.
- Bikotea aldatuko dute. Berriz kontatu behar dute baina ez norberarena, besteak kontatu diona baizik.
- Taldean jarriko dira. Irakasleak boluntarioak eskatuko ditu edo 3-4 kide aukeratuko ditu.
- Kide horietako bakoitzak entzun duen azken errelatoa errepikatu behar du.
- Irakasleak galderak egin ditzake:
 - o Kontatzen ari denari, aurretik kontatu dionari, bizipena izan duenari...
 - o Galderak kontalariei egin beharrea beste ikasleei egitea ere aukera bat da: ikusten ditugun hutsuneei buruz galdetu eta erantzuna ez dakitenez beraiek galdetu dezaten proposatu.
- Eredua ematea: bikoteka jarri aurretik egokia izan da erabiliko duten hiztegiaren inguruko ereduak ematea. Bideo bat izan daiteke edo testu bat. Bideoa ikusi (edo testua irakurri) eta hiztegia osatu dezakegu guztion artean: gauza onak gertatzen zaizkigunean edo oso ondo pasa dugunean zer esan dezakegu? Zerrenda bat egin dezakegu eta arbelean idatzi dinamikan zehar ikasleek erabili ahal izateko.
- Oharra: bikoteka daudenean euskaraz aritu behar dutela oso argi izan behar dute (gogorarazi behar zaie) eta irakaslea adi egongo da, gaztelaniarako joera sumatzen badu dagokion bikotera hurbildu eta elkarrizketak euskarara bideratzeko.

1.2.– Galderak erantzuten

- Bakoitzak asteburuan egindako zerbait idatzita ekarri behar du bost edo sei lerrotan
 - Guztiak kaxa batean sartuko ditugu.
 - Taldeka banatuko ditugu. 3–4 kideko taldeak.
 - Irakasleak bat aterako du. Dagokionak irakurri egingo du.
 - Talde bakoitzak bi galdera pentsatu behar ditu. Hiru minutu izango dituzte horretarako.
 - Talde bakoitzak bere galderak egingo dizkio eta ikasleak erantzungo ditu. Zailtasunak baldin baditu irakasleak lagunduko dio ereduak eskainiz.
 - Denbora ematen badu ikasle gehiagoren errelatoekin berdina egingo da.
-
- Eredua ematea: kasu honetan agian ez da behar aurretik eredu ematea eta eredu emango zaio erantzun behar duen ikasleari momentuan bertan. Eredua ematea beharrezkoa bada, saio bat erabili daiteke asteburuan egingo dutenaz galdetzeko eta hor egiten denaren inguruko ereduak eskaintzeko (ahoz irakasleak, idatzizko testuak...) eta hurrengo asterako asteburuan egindako zerbait idatziz ekartzeko eskatu.
 - Oharra: taldeka daudenean euskaraz aritu behar dutela oso argi izan behar dute (gogorarazi behar zaie) eta irakaslea adi egongo da gaztelaniarako joera sumatzen badu dagokion taldera hurbildu eta elkarriketak euskarara bideratzeko.

1.3.– Zer gertatu zen?

- Taldeka jarriko ditugu: 3 edo 4 kideko taldeak.
- Kazetari talde bat da eta gertakari bat kontatu behar dute.
- Bost gai izango dituzte aukeran eta talde bakoitzak gai bat aukeratuko du
- Gai horri dagokion gutun–azala hartu beharko dute

- Gutun-azalaren barruan kontatu behar duten horretan sartu beharreko hiru elementu izango dituzte.
- Kontakizuna osatu behar dute
- Gainontzekoei aurkezteko, taldeko batek aurkezle papera hartuko du eta besteak erreportariak izango dira: gertakaria gertatu den lekuan dauden kazetariak. Aurkezleak galderak egingo dizkie eta beraiek erantzun.

Adibidea:

Gaiak eta elementuak				
Kirola	Musika	Istripua	Lapurreta	Ezkontza
Korrikalariak Helmuga Zapatila	Kontzertua Sarrerak Metroa	Autobusa Olioia Auto-ilarak	Bankua Tiroak Hegazkina	Pertsonaia ezaguna Lokatza Banketea
<p><i>Adb: Albiste baten berri eman digute. Istripu bat gertatu omen da A8 autobidean Barakaldo parean. Horren berri emateko bertan dauzkagu gure erreportariak. Egun on, Aitor, zer gertatu da ba?... Eta zer diote auto-ilaretan harrapatuta daudenek?... Ertzaintzak eman al du azalpenik?...</i></p>				

1.4.- Kale kondaira

- Binaka edo hirunaka jarriko ditugu.
- Ezagutzen al dituzte leienda urbanoak? Baiezkoa bada, kontatu ditzatela. Irakaslearen laguntza beharko dute ondo kontatzeko, erreferentzia guztiak gaztelaniaz izango baitituzte.
- Ezezkoa bada, guk aurkeztuko diegu leienda urbano bat (erdarazko www.leyendas-urbanas.com-en hainbat daude, eta erraza da euskaraz jartzea). Adibidez:

Autobus gidaria. Gaez autobusa gidatzen ari da. Barakaldotik atera eta eta Sestao aldera doa. Azken bidaiaria jaitsi da. Ilun dago eta euria egiten du. Une batean atzera begiratzen du eta 12-13 urteko neska bat ikusten du, zuriz jantzia eta zurbil zurbila, hirugarren ilaran eserita eta berari begira. Sekulako sustoa hartzen du baina ez du ezer esaten.

Neskak esaten dio: hilerrira eramatea nahi dut. Baina hilerrira ez da bere bidean sartzen eta ezin duela eraman esaten dio. Hilerrira eramatea nahi dut! Behin eta berriz berdina esaten du eta gidaria beldurtu egiten da. Hilerrira eramaten du. Hilerrira parean geratzen da eta atzera begiratzen duenean... neska ez dago! Baina berak ez ditu ateak oraindik ireki!

Hurrengo astean, bide bera egin behar du eta ordutegi berean. Autobusa hutsik dago eta euria egiten du...

- Beraiek aukeratutako edo guk aurkeztutako leienda hori, lehen pertsonan kontatu beharko dute. Denbora bat emango diegu prestatzeko, eta ondoren ahalik eta modu sinesgarrienean kontatu behar dute.

2.- Narrazioa

2.1.- Ipuina egokitzen

- Taldeka jarriko dira, 3-4ko kide
- Ipuin bat emango diegu. Laburra. Irakurri egin behar dute.
- Ondoren, irakasleak irakurriko du ozen.
- Talde bakoitzak kaxa batetik paper bat hartuko du. Bertan ipuinean sartu beharreko aldaera bat agertuko da. Adb: *gaiztoa txintxo bihurtzen da, otsoa izan beharrean sagu bat da...*
- Talde bakoitzak, idatzi gabe, ipuina moldatu behar du. Beraien artean ipuin berria adostu behar dute.
- Ondoren, talde bakoitzak bere ipuina kontatuko du.
- Irakasleak galderak egin ditzake eta besteei galderak egiteko aukera ere eman diezaieke.
- Denbora ematen badu dinamikari buruz hitz egin daiteke: *Zein izan da gehien gustatu zaizuen ipuina? Erraza al da moldatzea?...*

- Eredua ematea: ipuina idatziz dutenez eredu gehiena bertan dute. Irakaslea taldez talde dabilenean, batzuk hiztegiarekin arazoak dituztela ikusten badu, ereduak eskainiko dizkie.

- Oharra: taldeka daudenean euskaraz aritu behar dutela oso argi izan behar dute (gogorarazi behar zaie) eta irakaslea adi egongo da gaztelaniarako joera sumatzen duenean dagokion taldera hurbildu eta elkarrizketak euskarara bideratzeko.

Ipuin adibidea

Orain dela urte asko eta asko, Barakaldo herri txiki bat zen. Oso txikia. Bertan lau etxe eta bi baserri besterik ez zeuden.

Inguruko herrietan gero eta jende gehiago bizi ze baina Barakaldon ez. Zergatik? Herensuge bat bizi zelako bertan.

Herensugeak herriko biztanle guztiak beldurtzen zituen. Normalean ardiak eta txerriak jaten zituen, baina batzuetan pertsonaren bat ere jaten zuen.

Egun batean, herrira hiru ahizpa iritsi ziren. Bizitzeko leku baten bila zebiltzan eta Barakaldo oso oso polita iruditu zitzaien.

Bereziak ziren hiru neska hauek:

- Batek oso azkar egiten zuen korrika. Gaur egungo auto batek bezain azkar.
- Bigarrenak bista oso ona zuen: urrutiko gauzak ondo ikusteko gaitasuna zuen.
- Hirugarrena, berriz, gezilari ona zen: urrutira egon zitekeen edozer gauzari gezia bota eta eman egiten zion.

Herrian zer gertatzen zen jakin zutenean, herensugea hiltzea erabaki zuten.

Korrika azkar egiten zuena herensugea bizi zen kobazulora hurbildu zen eta oihuka hasi zen: Hemen nago! Hemen nago! Ezetz harrapatu! Herensugea ziztu bizian kobazulotik atera zen eta atzetik abiatu zen. Korrika bizia atera zen ahizpa hori eta herrirantz hurbildu zenean, bista ona zuen ahizpak ikusi zuen nola herensugea atzetik zuen eta asko ari zitzaion hurbiltzen. Gezilariari esan zion:

- Adi! Hamar segundo barru etxe horren atzetik agertuko da herensugea.

Herensugea agertu zenean gezia bota eta hil egin zuen.

Horren ondoren, hiru ahizpak herrian bizitzera geratu ziren oso pozik.

Eta handik aurrera Barakaldo ere hazi eta hazi egin zen. Gero eta handiagoa. Gaur egungo hiria izatera iritsi arte.

Eta hori horrela bazan, sartu dadila kalabazan, eta atera dadila Gurutzetako plazan.

Ipuinerako aldaketak (taldeka lantzeko eta ahoz ipuina kontatzeko):

- Herensugea ez zen gaiztoa. Herriko biztanleak ez zuten motiborik beldurtzeko.
- Herensugeak korrika azkar egiten duen ahizpa harrapatu egiten du.
- Korrika egiten duenak ondo egiten du bere lana, baina lainotuta dago eta bista ona duenak ez du herensugea iristen ikusten.
- Gezilariak egun txarra du: gezi guztiak bota ditu eta ez dio herensugeari eman.

2.2.- Ametsak asmatzen

Egin nahiko genukeen baina egitea ezinezkoa edo ia ezinezkoa ikusten dugun zerbait.

- Bideo batean norbaiten ametsak jarriko dizkiegu (ez badugu bideorik aurkitzen, testu bat ere izan daiteke)
- Horri buruz hitz egingo dugu haiei galderak eginaz: Amets batek egingarria izan behar du edo ezinezkoa ere izan daiteke? Bete duten ametsik ba al dute? Eta aurrera begirako ametsik? Ezinezko ametsik ba al dute?... Saiatuko gara ahalik eta giro informalea sortzen ikasleek parte hartu dezaten. Nahi duena azaltzeko zailtasunak dituenari laguntza eskainiko diogu.
- Ondoren, binaka jarriko dira.
- Abiapuntu bezala bikote guztiek amets bera izango dute: Ilargira joan nahi nuke.
- Jarraian kaxa batetik, bi hitz aterako ditu bikote bakoitzak. Bikoteak, idatzi gabe, ametsa moldatu behar du. Bi-hiru minutu izango dituzte eta ondoren bikote bakoitzak bere ametsa azalduko du. Besteek, ametsa osatzera begira, galderak egin ahal izango dizkiete.
- Guztiek modu berean hasi behar dute kontaketa: "Gure ametsik handiena da, egunen batean..."
- Hitz edo esaldi adibideak kaxan sartzeko:

Nola joango naiz?	Zer egingo dugu?
Espazio ontzia egin	Bertako biztanleekin topo egiten duen lehen gizakia izango naiz
Espazio ontzia erosi	Lehenengo turista izango naiz
Espazio ontzia lapurtu	Bertara bizitzera doan lehenengo gizakia izango naiz
Espazio ontzi batean ezkutuan sartu	Ikerlaria izango naiz eta aurkikuntza harrigarriak egingo ditut

- Irakasleak galderak egingo ditu: *Zein da ametsik ederrena? Eta arraroena?... Aukera ikusten badu eztabaidan jarriko ditu batzuk besteekin.*
- Eredua ematea: hasieran eredia ematen zaie (bideoz edo idatziz). Gaiari buruz hitz egiten denez une hori ere erabiliko du irakasleak hainbat

eredu eskaintzeko. Bikoteka daudenean irakaslea adi ibiliko da eta zailtasunak dituztenei ereduak eskainiko dizkie.

- Oharra: bikoteka daudenean euskaraz aritu behar dutela oso argi izan behar dute (gogorarazi behar zaie) eta irakaslea adi egongo da gaztelaniarako joera sumatzen badu dagokion bikotera hurbildu eta elkarriketak euskarara bideratzeko.

2.3.- Narrazioari galderak eta ekarpenak egiten

- Bikoteka jarriko ditugu
- Ipuin bat jarriko diegu entzuteko. Hainbat daude www.etxegiroan.com atarian edo baita www.synbaloo.com/mis/ipuin-klasikoak orrietan.
- Ipuinaren zati bat entzungo dugu eta gelditu.
- Lehen urratsa:
 - o Zein galdera etortzen zaizkie burura? Bikote bakoitzak 2 minutu izango ditu galderak egiteko (idatz dezakete)
 - o Denon artean zerrenda osatuko dugu arbelean
- Bigarren urratsa:
 - o Zer gertatuko da ondoren? Bikote bakoitzak ipuinak nola jarraitzen duen asmatu behar du (ezin dute idatzi)
 - o Lau bikotek kontatu egingo dute (guk aukeratuko ditugu) eta beste norbaitek kontatu nahi ote duen ere galdetuko dugu.
- Hirugarren urratsa:
 - o Azken zatia entzungo dugu.
 - o Espero moduan amaitzen da? Zer iruditzen zaie amaiera? ... Eztabaida sortuko dugu eta bikoteei galderak egingo dizkie irakasleak.
- Adibidez: Txikle lapurretan (www.etxegiroan.com)
 - o Lehen zatia entzun (80 segundora arte)
 - o Lehen urratsa:
 - Zein galdera bururatzen zaizkizu? Adb: Zergatik txikle eta ez gozokia? Zein zaporetakoa izango zen?... Bikote bakoitzak gutxienez 6 galdera pentsatu behar ditu.
 - Bi minutu utziko dizkiegu.
 - Arbelean zerrenda osatuko dugu.
 - o Bigarren urratsa:
 - Zer gertatuko da ondoren? Zer uste dute?
 - Bi minutu izango dituzte (ezin dute idatzi)

- Bikote batzuei kontatzeko eskatuko diegu. Besteei ere aukera emango diegu nahi baldin badute.
- Hirugarren urratsa:
 - Azken zatia entzungo dugu.
 - Zergatik esaten du hori dendariak?
 - Pilota bat hartu eta gelako bati botako dio. Erantzun egin beharko du.
 - Berak beste bati botako dio eta galdera egin beharko dio: Ados zaude? Zuk zer uste duzu? Eta honek erantzungo du.
 - Pilota bata besteari pasatzen iritziak emango dituzte.
 - Irakasleak parte har dezake eta galdera gehiago egin: eta beste modu honetara erantzun izan balio? ...

Oharra: adinetara egokitutako ipuina jarri behar dugu, eta, errazagoa baldin bada, lehendik ezagutzen duten ipuin bat ere izan daiteke.

2.4.– Beste taldeak ipuina asma dezan

- Talde txikitik jarriko ditugu
- Talde bakoitzak ipuin bat asmatu behar du
- Ipuina nolakoa izango den beste taldeek esango diete. Hau da: arbelean zerrenda batzuk jarriko ditugu eta txandaka talde bakoitzak besteei esango diete zer tokatu zaien. Hau da: lehenengo taldeak zerrendatik gauza bat aukeratuko du eta gai hori zein taldek landuko duen esango du.
- Lau elementu izango dira ipuinean sartu beharrekoak.
- Talde bakoitzak denbora bat izango du ipuina prestatzeko. Ahoz egin behar dute. Ezin dute idatzi.
- Ondoren, besteei ipuina kontatu beharko diete. Kontatzerakoan guztiek parte hartu behar dute: narratzaileak eta pertsonaiak, edo bakoitzak zati bat...

- Adibidea:

Zerrendak			
Abiapuntuko ipuina	Pertsonaia berria	Beste aldagai bat	Tonua edota amaiera
Txanogorritxo	Sorgina	Gure herrian	Tonu tristea
Hiru txerritxoak	Txakurra	gertatzen da	Tonu alaia
Txokolatezko etxea	Katua	Txinan gertatzen da	Haserre bageunde bezala
Hiru hartzak	Lehoia	Gauetz gertatzen da	Amaiera ona
Edurne zuri	Ehiztaria	da	Amaiera txarra
Ahuntza eta 7 antxumeak	Okina	Euria ari du	Amaiera harrigarria
Ahate itsusia
...			

Oharra: ipuinen bertsioak izan beharrean ipuinak sortzea da beste aukeretako bat. Gaiak jarri zerrendan eta hortik abiatu.

3.- Deskribapena

3.1.- Nor da pertsonaia?

- Hirunaka jarriko ditugu
- Orri batean lau marrazki dituzte:
 - o Gizonezko bat. Katiuskak ditu. Lokatza du katiusketan. Betaurreko beltzak ditu. Tatuaje bat besoan. Eskuan mailu handi bat dauka.
 - o Emakume bat. Zapatilekin eta txandalarekin. Galtza zati bat puskatuta du. Izerditan dago.
 - o Emakume bat. Galtzak eta kamiseta beltza ditu. Zaku bat du eskuetan (beteta ikusten da). Irribarrez dago.
 - o Baserri bat. Kanpoan zakurra eta zakurraren ondoan emakumeak duen txandalaren kolore bereko tela puska bat. Baserriko atea puskatuta dago.
- Marrazkiez hitz egingo dugu. Horretarako galderak egingo ditu irakasleak: Zer agertzen da marrazkietan? Nola daude jantzita? Zein bereizgarri dituzte? Baserrian zer ikus dezakegu?
- Egoera bat azalduko diegu: Baserri batean ardi bat lapurtu dute. Hiru pertsonai hauetako bat izan da. Nor izan da?
- Hirukote bakoitzak norbait aukeratu behar du. Arbelean idatziko dugu hirukote bakoitzak nor aukeratu duen.
- Galderak egiten hasiko gara: Zergatik aukeratu duzue zuek...? Zerk eman dizue atentzioa? Nola dago jantzita? Itxurak ere eragin du aukeraketan? Nola dago jantzita?... Batzuei eta besteei galderak egingo dizkiegu.
- Ondoren, beraien artean eztabaidatzen jarriko ditugu. Zure ustez nola izan zen gertakizuna? Eta zu ados zaude? Kontatuko diozu zure ustez nola izan zen? Beste norbaitek uste du beste era batera izan zela?...
- Irakaslearen jarrerak aktiboa izan behar du: galderak egin, hutsuneak ikusi eta galdetu, eztabaidan jarri, iritzia eskatu...
- Eredua ematea: eredia momentuan bertan emango zaie, marrazkiak banatu eta horiei buruz galderak egitean.
- Oharra: hirunaka daudenean euskaraz aritu behar dutela oso argi izan behar dute (gogorarazi behar zaie) eta irakaslea adi egongo da gaztelaniarako joera sumatzen badu dagokion taldera hurbildu eta elkarrizketak euskarara bideratzeko.

3.2.- Irudi ezkutua I

- Taldeka banatuko ditugu. Bost talde egingo ditugu.
- Talde bakoitzari irudi bat emango diogu. Irudi nahiko sinplea. Adb: itsasoa-hondartza-itsasontziak, mendia-basoa-animaliak, ikastetxe bat-frontoia...
- Dinamika azalduko diegu: talde bakoitzak marrazkiaren deskripzioa egin behar du. Ondoren, talde ezberdinetako kideak nahastuko dira eta bakoitzak bere marrazkia azaldu beharko die besteei baina hauek ez dute ikusten. Deskripzioari jarraituz, eta galderarik egin gabe, marraztu behar dute.
- Talde bakoitzak bere marrazkiaren deskripzioa egingo du bost minututan. Irakaslea taldez talde ibiliko da laguntza behar badute eredia eskaintzeko.
- Taldeko kideak nahastuko dira bost talde berri osatuz. Kide bakoitzak bere marrazkia azalduko du eta besteei, galderarik egin gabe, marraztu egingo dute. Beste taldeetakoek marrazkia ez ikusteko, azaldu behar duenak deskripzioa idatziz izan dezake baina ez du marrazkia aurrean izango.
- Bost marrazkiak egin dituztenean irakasleak jaso egingo ditu.
- Dinamika errepikatuko dugu baina orain galderak egin ditzakete.
- Bost marrazkiak egitean berriz jasoko ditu irakasleak.
- Guztiak paretan jarriko ditugu.
- Galderak egingo ditugu: Erraza izan da deskripzioak prestatzea? Baina azaltzerakoan besteei argi ikusi al dute? Galderak egin dituztenean errazagoa izan al da? Deskripzioak hobetu al dira galderen bidez? Eta abar.
- Eredua ematea: eredia momentuan bertan emango zaie, marrazkiak banatu eta horiek taldeetan lantzen ari direnean.
- Oharra: taldeka daudenean euskaraz aritu behar dutela oso argi izan behar dute (gogorazi behar zaie) eta irakaslea adi egongo da gaztelaniarako joera sumatzen badu dagokion taldera hurbildu eta elkarrizketak euskarara bideratzeko.

3.3.– Irudi ezkutua II

Taldeko kide bat (bolondresa?) erdira aterako da. Kutxa batetik marrazki-irudi bat aterako du: pertsonaia ezagun bat izan daiteke, leku ezagun bat...

Ikaskideek, txandaka, galderak egin behar dizkiote. Galdera eredu batzuk arbelean idatzita egongo dira. Adb: Pertsona bat da? Leku bat da? Zein koloretakoa da...? Zer darama jantzita? ...

Erdian dagoenak galderak erantzungo ditu. Beharrezkoa bada irakasleak lagunduko dio erantzunak ondo osatzen.

Ikaskideek irudi ezkutuan zer dagoen asmatu behar dute.

3.4.– Abestiak aukeratzen

Taldeka jarriko ditugu eta talde bakoitzari hiru abesti emango dizkiegu aukeran. Entzuten utziko diegu eta bat aukeratu behar dute. Internet erabili bagenezake www.badok.info webgunea, adibidez, zerrenda luzea aukeratuko dugu.

Talde bakoitzak abesti bat aukeratu behar du eta deskripzio bat prestatu behar du. Horretarako, aurretik abesti baten bi deskripzio pasako dizkiegu: beraien artean oso ezberdinak diren deskripzioak. Adb: abesti hau oso martxosoa da, erritmo biziak ditu, dantzan jartzen zaitu... Abesti hau gaur egun oso ohikoa da, musika talde askok antzekoa egiten dute, instrumentu hauek erabiltzen dira...

Denbora bat utziko diegu deskripzioa prestatzeko. Tarte horretan irakaslea taldez talde ibiliko da laguntzen eta elkarrizketak euskarara bideratzen (beharrezkoa denean).

Talde bakoitzak abestiaren deskripzioa egingo du (taldekide batek egin dezake edo denen artean) eta gero abestia jarriko da. Ondoren, taldekide batek beste taldeetakoiei galderak egin behar dizkie (beraiek erabaki dezakete nori galdetu edo guk esan nori galdetu). Horretarako deskripzioan jarri dituzten puntuak erabili behar ditu eta errutina linguistiko bat erabili beharko dute: Gure abestia ----- dela iruditzen zaizu? Gure abestia ----- dela iruditzen zaizu? (martxoa, erritmo biziak...). Besteak erantzun behar du: Bai, uste dut zuen abestia... dela. Edo, Ez, ez dut uste zuen abestia... denik.

Galdezka ari direnean irakaslea adi egongo da laguntza eskaintzeko (zerbait azaltzeko zailtasunak baldin badituzte eredu eman eta errepikatu araziz) eta gainera galdera osagarriak ere egin ditzake eta banakako elkarrizketak landu.

Berdin egingo dugu beste abestiekin.

Azkenean bozketa egingo dugu eta gustukoena den abestia aukeratuko dugu. Norberak ezin dio botoa eman bere taldeak aukeratu duen abestiari.

Oharra: abestiak aukeran ematean estiloekin jokatu dezakegu eta saio bat baino gehiago erabili dinamika hau egiteko (egun batean abesti tradizionalak, beste batean rok musika, bitxikeriak...). Horrela egiten badugu, gainera, errutina linguistikoetan aldaketak sartu ditzakegu (galdera moduetan, erantzunetan...) eta gaitasunak lantzeko erabili.

3.5.- Zer dago argazkien atzean?

- Hirunaka jarriko ditugu
- Power pointean 6 argazki izango ditugu eta banaka jarriko dizkiegu. Argazki bakoitzaren bi urrats emango ditugu.
- Lehenengo urratsa: Deskripzio objektiboa

- Hirukote bakoitzak hiru-lau minutu izango ditu deskripzio bat egiteko (idatzi dezakete)
 - Ondoren talde bati eskatuko diogu deskripzioa egiteko. Eta gero beste taldeei haiek egindakoa osatzeko.
 - Irakasleak galderak egin ditzake deskripzioa osatzeko.
 - Soilik ikusten dena deskribatu nahi dugu. Ahalik eta deskripzio objektiboena.
- Bigarren urratsa: deskripzio subjektiboa
- Baina zer da argazki horrek adierazten diguna? Zer sumatzen dugu? Zer esaten digu? Ze egoera–historia–emozio edo dena delako dago horren atzean?
 - Taldetxo bakoitzak bi–hiru minutu izango ditu horretaz hitz egiteko (ezin dute idatzi)
 - Ondoren guztion artean hitz egingo dugu eta moderatzaile moduan irakaslea arituko da. Hori bai: moderatzaile lanetan ikasleak txandaka jartzea ere oso aproposa izan daiteke (dinamika ondo bideratu daitekeela iruditzen bazaigu, hobe beraiek moderatzaile eta gu laguntzaile)

3.6.– Definizioa–hitza–definizioa

- Bi zirkulu egingo ditugu: kanpoaldekoa eta barrualdekoa. Aulkiekin egingo ditugu eta bikoteka jarriko dira. Adibidez: 20 ikasle = 10 bikote = 10 aulkiko zirkulua eta horren barruan beste 10 aulkiko zirkulua.
- Kanpoaldekoak gutun–azal bat izango du eta barruan hitz bat.
- Besteek ezer jakin gabe definizio bat pentsatu behar dute.
- Definitu egingo dute. Ezin dute idatzi. Definizioak ahozkoa izan behar du. Besteak ezin du galderarik egin. Bi–hiru aldiz definizioa entzun besterik ez.
- Definizio horren arabera barrualdekoak hitz bat idatzi behar du post–it batean. Besteak ez du ikusi behar eta ingurukoek ere ez.
- Altxa egingo dira. Hasieran zuen hitza gutun–azalean sartu eta bere aulkian utziko du kanpoaldekoak. Barrualdekoak berak idatzi duena gutun–azal horren gainean buelta emanda (ez ikusteko).
- Barruko ilarakoak bere ezkerretara dauden aulkira pasako dira. Kanpoaldekoak bere eskuinetara dagoenera.

- Berriz prozesu bera: kanpoaldekoak definizioa egin eta barrualdekoak hitza idatzi. Kanpoaldekoak eskuan duena gutun-azalean sartu eta besteak berak idatzitakoa gainean jarri. Ezkerretara eta eskuinetara.
- Buelta guztia egin arte.
- Ondoren, gutun-azal bakoitzean dagoena irakurriko dugu. Zein hitz daude? Hasieratik amaierara berdin doaz? Aldatzen da? Non egon dira zailtasunak eta zalantzak? Horretaz hitz egingo dugu.
- Dinamika nahiko dibertigarria ere izan daiteke, hasieratik amaierara asko aldatu bait daiteke.

Hitz adibideak:

- Itsasontzia
- Zerua
- Itsasoa
- Ibaia
- Balea
- Korrikalaria
- ...

Oharra I: Post-it moduan kolore ezberdinetako orriak erabiltzen baditugu, prozesua zein ordenetan joan den jakin dezakegu eta dinamikan lagundu dezake horrek. Hau da: hasierakoa paper zurian zegoen, gero gorrian jarri dute, gero urdinean... Horrela bilakaera osoa ikus daiteke.

Oharra II: aukera bat da barrualdekoak galderak egin ahal izatea, baina horrek asko errazten du kanpokoan lana. Adinaren arabera edo jarri nahi diogun zailtasunaren arabera, aukera ona izan daiteke.

4.- Azalpena

4.1.- Azalpen katea

- Sei edo zazpi boluntario eskatuko ditugu
- Gelatik aterako dira. Pasilloan itxaron behar dute.
- Lehenengoa sartuko da. Irakasleak azalpen bat emango dio eta gero berak errepikatu behar dio hirugarrenari. Minutu inguruko azalpena izango da. Adb: hurrengo txangoa nora izango den, zenbat kilometro dauden, nola joango diren, zer egingo duten bertan, zer eraman behar duten, noiz izango den, ordutegia, gurasoen baimenik behar ote duten, lehen ikastetxetik leku horretara txangorik egin izan ote den... (Irakasleak gidoia idatziz ere eduki dezake nahi badu)
- Bigarrena sartuko da. Lehenengoak azalpena emango dio. Hirugarrenak bigarrenari. Laugarrenak hirugarrenari. ...
- Sartzen den kide bakoitzak galderak egin diezazkioke azalpenak ematen dizkionari, baina beste inork ezin du parte hartu.
- Katea amaitzean, zazpigarrenak guztiei berak entzundakoa azalduko die.
- (Normalean informazio asko galtzen da katean zehar eta azken azalpena laburra izateaz gain akatsez bete ere egon daiteke).
- Irakaslea galderak egiten hasiko da: *Azken azalpenean zer da zuzena eta zer ez? Zer falta da?...* Taldekoek erantzun behar dute eta azalpena osatzen lagundu ere bai.
- Dinamikari buruz galderak egitea ere egokia izan daiteke: *zer iruditu zaie? Informazio asko galdu al da? Hau eguneroko bizitzan ere gertatzen al da?...*

- Eredua ematea: gerta daiteke azalpena errepikatzerakoan ikasleren batek hiztegian hutsuneak izatea (eredua jaso duen arren). Zailtasunak baditu irakasleak lagunduko dio.

Azalpen kate adibidea

Hurrengo txangoa _____ra egingo dugu. _____ ezagutzera joango gara.

Txangoa abenduaren 3an izango da, euskararen egunean. _____n hainbat ekitaldia antolatu dituzte eta zuen gustukoak izango direla uste dugu. Besteak beste rap talde baten emanaldia egongo da eta ondoren DJ bat arituko da.

Gure zikloko talde guziak joango gara. Metroan/treanean joango garenez txartela ekarri behar duzue.

Ez gara ikastetxean bilduko. Metroko/treneko sarreran bilduko gara. Han egon behar duzue zortzi t'erdi tarako.

_____ra iristean lehenik eta behin parte zaharretik osteratxo bat egingo dugu. Kultur ikuspegitik interes gehien duten lekuak erakutsiko dizkizuegu. Historiako irakaslea arduratuko da horretaz.

Gero Plaza Nagusian izango diren ekitaldietara joango gara. Han egon behar dugu 11.00etarako. Noski, zuen kaxa ibiltzeko aukera ere izango duzue. Eguerdian denok elkartuko gara bazkaltzera. 14.00etan plazaren erdi erdian bilduko gara.

Beraz, bazkaria ere eraman. Eraman beharrekoak: bazkaria, euritakoa (aterkia edo txamarra), metroko txartela eta ondo pasatzeko gogoa.

Bazkaldu eta gero pista jolas bat egingo dugu parte zaharreen zehar. Goizean emandako azalpenetan oinarrituta, pista batzuk emango dizkizuegu eta zuek puzzle bat osatu behar duzue. Sariak ere emango dizkizuegu. Hurrengo asteetan izango diren kontzertu eta antzerki batzuetarako sarrerak izango dira.

Gero metroa/trena hartu eta herrira itzuliko gara. 17.00etarako hemen izango gara.

Espero dut guztia argi geratu izana. Ez dut egun horretan azalpenak ematen ibili nahi.

4.2.– Azalpena taldeari:

- Hirunaka banatuko ditugu
 - Testu labur bat emango diegu hirukote bakoitzari. Ahal dela beraientzat interesgarria edo deigarria den gai bati buruzkoa izango da: modako musika talderen bat, kirol bat, tatuaiak...
 - Hirukote bakoitzak testua irakurriko du eta horri buruz hitz egingo dute. Zer gehiago dakite horri buruz? Gustukoa dute gai horretan agertzen dena?... Ez dute idatzi behar landu dutena. 15 minutu izango dituzte horretarako.
 - Ondoren hirukote bakoitzak taldeari testuan zer jartzen zuen eta beraiek zer komentatu duten azalduko diote.
 - Taldekideek galderak egiteko eta iritzia emateko tarteak izango dute.
-
- Eredua ematea: testuan jasoko dute eredu. Horretaz gain, irakaslea taldez talde dabilenean ere lagunduko ideiak osatzen (galderak egingo dizkie) eta horretan ari denean ere ereduak eskainiko dizkie.
 - Oharra: taldeka daudenean euskaraz aritu behar dutela oso argi izan behar dute (gogorarazi behar zaie) eta irakaslea adi egongo da gaztelaniarako joera sumatzen badu dagokion taldera hurbildu eta elkarriketak euskarara bideratzeko.

4.3.– Azalpena zuzendariari eta lagunei

- Binaka edo hirunaka jarriko ditugu
- Egoera honetan kokatu behar dute: Berandu iritsi zarete eskolara. Arrazoia: turista xelege batzuk herriari buruzko gauzei galdezka hasi zaizkizue (non dagoen pizzeria, hondartza gertu ote dagoen, onddoak zein zuhaitzen azpian bildu behar diren...), auto-karabana batean zihozten eta hura ere itxura arrarokoa (hori-gorria, zaharra, musika egiten duen bozina batekin...), beraien janzkera ere xelegea... (agian argazkiren bat bilatu daiteke interneten lagungarri).

- 1.- Klasea hasita dago. Irakaslea haserre dago. Zuzendariarengana bidaltzen zaituzte. Zuzendariak zer gertatu den galdetzen dizue.
- 2.- Eskolatik ateratzean beste lagunei kontatu nahi diezue egoera nola izan den.

- Taldetxo batzuk egoera batean nola azalduko luketen landuko dute, eta besteek beste egoeran.

- Nahi badute idatzi dezakete, baina dinamikaren bigarren zatian ezingo dute idatzitakoa erabili.

- Ondoren, antzezpen modukoak egingo ditugu:
 - Boluntario bat eskatuko dugu. Zuzendaria izango da.
 - Irakaslearen mahaiko aulkian eseriko da.
 - Zuzendariaren gaia landu duten ikasle batzuk kanpora aterako dira.
 - Atea joko dute. Zuzendariak sartzeko esango die.
 - “Irakasleak pasa dit abisua. Berandu iritsi zarete denok. Hori falta larria da. Baduzue azalpenik?”
 - Azalpenak ematen hasiko dira. Zuzendari lanak egiten dituenak galderak egin ditzake, azalpen osagarriak eskatu, bati edo besteari...
 - Irakasleak zuzendariari lagunduko dio galderak egiten, bideratzen...

- Jarraian, beste antzezpena:
 - Bikote bat jarriko da gela erdian jarriko ditugun bi aulkitan eta aulki gehiago inguruan borobila eginaz
 - Lagunei begirako arloa landu dutenak kanpora aterako dira
 - Txirrinaren soinua egingo du norbaitek
 - Atea ireki eta gelan sartuko dira. Aulkietan eseri.
 - Ahal duten azkarren dena kontatzen saiatuko dira. Elkarri txanda errespetatu gabe. ...
 - Pixka batean horretan utzi eta gero irakasleak geratzeko eskatuko die.
 - Orduan hasiko dira bi ikasleak galderak egiten: *Baina baina, zer demontre pasa zaizue ba? Flipatuta geunden! Ea.. Baina... Eta zuzendariak zer esan dizue?...*

5.- Argudiaketa

5.1.- Gaiak aukeratzen

- Taldeka banatuko ditugu. Hiru-lau kideko taldeak.
- 15 gai jarriko dizkiegu aukeran. Arbelean idatziko dugu zerrenda. Adb ikasleen egoera batzuen inguruko gaiak izan daitezke: Ikasleen oporrak gehiegizkoak al dira? Gurasoek paga eman behar diete seme-alabei? Asteburuetan ordutegi malguagoa utzi behar lukete gurasoek? ...
- Talde bakoitzak bost aukeratu behar ditu. Gai horien inguruan eztabaidatu nahi dugu eta eztabaidatzeko interesgarriak izan daitezkeen bost gai aukeratu behar dituzte. Gai horietako bakoitza zergatik aukeratu duten landu behar dute. Idatziz jartzeko eskatuko diegu.
- Bozketa egingo dugu. Bost gairekin geratu nahi dugu. Talde bakoitzak bere bostak esango ditu eta zergatik aukeratu duten. Dinamika konplikatuagoa egin nahi bada, gai bera aukeratzen duten taldeek ezin dute argumentu bera erabili. Beraz, argumentu bera baldin badute segundo gutxi batzuetan beste bat bilatzeko eskatuko zaie.
- Bozketa amaitzean, gai batzuen artean berdinketa baldin badago, taldeak eztabaidatzen jarriko ditugu. Irakasleak bideratuko du elkarrizketa. *Zergatik iruditzen zaizue talde honetakoei gai hau hobea dela? Azalduko diozue beste taldekoei eta saiatuko zarete konbentzitzen? Eta zuek...* Ez badira ados jartzen, zozketaz aukeratuko da gaia.
- Eredua ematea: taldeka daudenean emango zaie eredua. Hau da, argumentuak lantzen ari direnean, zailtasunak baldin badituzte, orduan emango dizkie irakasleak ereduak.
- Oharra: taldeka daudenean euskaraz aritu behar dutela oso argi izan behar dute (gogorarazi behar zaie) eta irakaslea adi egongo da gaztelaniarako joera sumatzen badu dagokion taldera hurbildu eta elkarrizketak euskarara bideratzeko.

5.2.– Telebistako debatea prestatzen

- Bost talde egingo ditugu. Talde bakoitzari aurreko saioan aukeratutako gai bat emango zaio.
- Gaiaren inguruko testu bat emango diegu. 10–15 lerroko testu bat.
- Taldeka jartzen direnean, taldekide bakoitzak izango duen papera azalduko zaio: bat aurkezlea izango da, bik gaiaren postura bat defendatuko dute eta beste biek beste postura bat. Argi izan behar dute antzerki bat dela baina eztabaida sutzurik ere ez dugula nahi, atsegina izatea nahi dugula.
- Debatea prestatu behar dute:
 - o 20–25 minutu izango dituzte
 - o Nola aurkeztuko du kide bakoitza aurkezleak?
 - o Zein izango dira aurkezleak egingo dituen galderak? Taldekoen artean 7–8 galderako zerrenda bat egingo dute. Galderak idatziz jasoko dituzte.
 - o Ondoren beraiek erantzungo dituzte baina bi posturetatik: alde daudenak eta kontra daudenak. Erantzunak landu bai baina ez dituzte idatziko. *Adb: Paga eman behar lukete gurasoek? Zenbatekoa? Baldintzak jarri behar lituzkete?... Paga eman behar dute bestela asteburuetan ezingo genukeelako ezer egin (aldekoek) edo ez lukete paga eman behar ohitu egiten garelako eta gehiegi gastatzen dugulako (kontrakoe).*
- Eredua ematea: testu bat emango diegu eta nahi badute informazio osagarria bilatzeko ere eskatu diegu (saiotik kanpo). Irakaslea taldez talde ibiliko da debatearen prestaketarekin laguntzen, tarte horretan ere ereduak emango ditu beharrezkoa bada.
- Oharra: taldeka daudenean euskaraz aritu behar dutela oso argi izan behar dute (gogorarazi behar zaie) eta irakaslea adi egongo da gaztelaniarako joera sumatzen badu dagokion taldera hurbildu eta elkarrizketak euskarara bideratzeko.

5.3.– Telebistako debatea

- Taldea besteen aurrean jarriko da.
 - Aurkezleak bere burua eta taldeko kideak aurkeztuko ditu. Ahal dela antzerki itxura eman behar du (*ni ETBko programa bateko aurkezlea naiz, oso ezaguna...*).
 - Aurkezleak galderak egingo dizkie beste taldekideei eta hauek landutakoa erantzun behar dute.
 - Tarteka, aurkezleak publikoko jendeari ere galderak egin behar dizkio (irakasleak gogorarazi beharko dio agian) eta hauek erantzun beharko dute.
 - Seguruenik bi saio beharko dira talde guztiek parte hartzeko.
 - Bi saioen amaieran dinamikari buruz ere hitz egin daiteke: gustura aritu diren, zer gustatu zaien, zer egin zaien zaila...
-
- Eredua ematea: irakaslea elkarrizketetara adi egongo da euskaraz izan daitezen bideratzeko eta zailtasunak dituenari baliabideak eskaintzeko.

5.4.– Babelko itsasontzia

Lehenengo saioa:

Bikoteka jarriko dira eta bikote bakoitzari 2 postit emango dizkiogu.

Lehenengo galdera: zenbat hizkuntza hitz egiten dira Euskal Herrian? Postitetan idatzi eta arbelean itsatsiko dituzte. Irakasleak multzoka egingo ditu: 0–10 artekoak, 10–20 artekoak, 20–30...

Kinder hizkuntzak ariketa egingo dugu. Bikote bakoitza zerrenda osatzen ahaleginduko da. Hau azalduko diegu: Kinder arrautzetan agertzen diren hizkuntzak dira, azkenekoa ezik guztiak Europako hizkuntzak. Zein da bakoitza? Ondoren, guztion artean zerrenda osatzen ahaleginduko gara eta irakasleak emaitzak emango ditu.

Ariketari buruz hitz egingo dugu: zenbat asmatu dituzte? Ba al zekiten Europar horrenbeste hizkuntza bazeudenik? Baina ez dira horiek bakarrik, beste hainbeste falta dira: guztira 55 inguru dira. Falta dira euskara, katalana...

Postiten ariketari helduko diogu berriz ere: Kinder arrautzetan agertzen diren hizkuntza horiek hitz egiten al dira gaur egun Euskal Herrian? Bulgariara, Alemaniera, Errumaniera, Ingelesa... Beste postit batean berriz hizkuntza kopuru bat idatzi eta arbelean jarri beharko dute. Kopuruen arabera multzokatuko ditugu.

Ondorioa: 104 hizkuntza hitz egiten dira EHn (Unescok 2009an argitaratutako ikerketa). Munduan 6000 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira.

Beraz: gizarte eleanitz batean bizi gara. Gure inguruan hizkuntza asko hitz egiten dira.

Ondoren, Babelko itsasontziaren dinamika egingo dugu:

- Hirukoteak edo laukoteak egingo ditugu.
- Talde bakoitza hizkuntza bat izango da: euskara, gaztelania, txinera, ingelesa, suahilia...
- Itsasontzi batean doaz eta ondoratzen ari da. Zama handiegia da.
- Arintzeko, hizkuntza bat bota behar da itsasontzitik.
- Hizkuntza bakoitzak (talde bakoitzak) beste bat aukeratu behar du itsasontzitik botatzeko eta zergatik aukeratzeko duen hizkuntza hori esan behar du.
- Bozketa egingo dugu eta argumentuak azalduko dira. Argumentuak azaltzerakoan errutina linguistikoren bat erabili araziko diegu (beti modu berean hastea, besteak esandakoari jarraipena emateko modua izatea...).
- Boto gehien duen hizkuntza mundutik desagertzen da.
- Beste 4-5 aldiz egingo dugu ariketa bera eta gero eta hizkuntza gutxiago izango ditugu itsasontzian.

Ariketarekin amaitzean, atera diren argumentuei buruz hitz egingo dugu: zeintzuk atera dira gehien? Seguruenik: ezezaguna izatea, zaila izatea... Ikusiko dugu argumentuek ez dutela zerikusirik hizkuntzekin beraiekin (aberatsa izatea, hobea izatea...) bestelako egoera batzuekin baizik (guk ez ezagutzea, urruti egotea...).

Saioaren amaiera: hurrengo saioan gai honekin jarraituko dugula aipatu diegu, eta gonbite bat egingo diegu: etxean dituzten produktueta azalpen orrietan zein hizkuntza agertzen diren begiratzea (janariak, etxeko tresnak, jokuak...).

Oharra: hizkuntza bat kanporatzeko argumentuen artean zailtasunarena egon daiteke (hizkuntza zaila izatea). Hori agertzen bada, oso argi azaldu behar diegu hori ez dela horrela, ez daudela hizkuntza zailak eta errazak: norberaren abiapuntua eta hizkuntza horrekin duen harremanaren arabera errazagoa edo zailagoa izango dela baizik. Hau da, gaztelania duen batentzat errazagoa da kataluniera ikastea euskararen aldean (gertuago duelako) baina Japoniar batentzat bai euskara bai gaztelania oso zailak dira. Era berean, Txinatarra ikasteak oso zaila ematen du, baina hizkuntza hori txikitatik ikasi duten 600 milioi haurrentzat oso erraza izan da.

Bigarren saioa:

Gaia kokatzea: Munduan 6000 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira eta Euskal Herrian 100 baino gehiago. Hori ona edo txarra da? Eta horren guztiaren barruan zein leku betetzen du euskarak? Horri buruz aritu nahi dugu gaurko saioan.

Ona al da hizkuntza-aniztasuna? Taldetxoak egingo ditugu eta galdera honi erantzun beharko diote: hizkuntza bakarraren alde egongo bagina, zein hizkuntza aukeratuko genuke? Zergatik?

Talde bakoitzak bere aukera egingo du eta talde osoari aurkeztu.

Ez badaude ados, argumentuak oinarri hartuz eztabaida bideratuko dugu. Zergatik uste duzue? Azalduko diezue besteei? Norbait ez dago ados? Saiatu zaitetz hauek konbentzitzen. Elkarrizketa bideratuko dugu eta eztabaidan lagunduko diegu.

Ados badaude edota egokia ikusten badugu, hainbat zalantza aurkeztuko dizkiegu:

- Hizkuntza internazionalena aukeratzen badute, ingelesak beharko luke. Baina ez da munduan erabiliena edo hiztun gehien dituenena. Zergatik da hizkuntza internazionalena? Hizkuntza berarengatik edo hizkuntza hori duten herrialdeetako botere politiko-ekonomikoagatik? Hori onartu behar dugu?

- Hizkuntza erabiliena aukeratzen badute Txinerak beharko luke (Mandarinak). 600 milioi hiztun inguru ditu. Irudikatzen al dugu gure burua eta ingurua Txinera hutsean hizketan?
- Gaztelania aukeratzen badute: ez da ez erabiliena ezta internazionalena ere. Herrialde askotan da hizkuntza ofiziala baina Arabiera ere 23 herrialdetan da ofiziala.
- Hizkuntza berri bat sortzearen aldekoak badira... Nork egin du ahalegina Esperantoa ikasteko?
- ...

Ikusten dugu hizkuntza bakarra aukeratzea zaila dela. Eta ziurrenik ez genuke hori nahi. Bide beretik, hizkuntza gutxi batzuk aukeratzea ere oso zaila litzateke. Nola egin aukeraketa? 10 hizkuntza aukeratu beharko bagenu... ados jarriko al gineteke gure artean? Eta ados jarri al daitezke herrialde ezberdinetako pertsonak elkarren artean?

Aztertu dezagun beste ikuspegi batetik. Zein dira hizkuntza bat baino gehiago jakitearen abantailak?

- Taldeka zerrenda bat egitea eskatuko diegu eta azaldu egin beharko dute.
- Zerrenda osatu nahi badugu hainbat egoera proposatuko dizkiegu ondoren (eranskinetan agertzen dira).
- Eta euskara jakiteak eta erabiltzeak zer ematen digu? Horri ere erantzun beharko diote.
- Azken mezua eman diezaiekegu:
 - o Hizkuntza-aniztasuna ona da. Aniztasun hori positiboki bizitzeko gertukoak zaintzetik hastea komeni da: bertako hizkuntzak eta ikasten ari garen hizkuntzak. Horietatik abiatuz beste hizkuntzak ere errespetatu eta gero eta gehiago ikasteko jarrera hartzea da positiboena: adibidez, bidaiatzen dugunean joaten garen lekuetako hizkuntzetako esaldiak eta hitzak ikasiz eta erabiliz.
 - o Euskara aniztasun horren parte da, eta laguntzen digu leku batekoak izaten (gure identitatearen parte da). Hori bai, ez ahaztu jakiteak baino erabiltzeak duela garrantzia, eta, gainera, euskara ondo jakiteko erabili egin behar dela.
 - o Hurrengo saio batzuetan ere jarraituko dugu gai hauekin.

Hizkuntza bat baino gehiago jakitearen abantailak
(irakasleak dinamika erabil ditzakeen argudio batzuk)

Ikuspegi gehiago–aberastasun kulturala:

- Bi herritar. Batek euskara daki eta besteak ez. Batek ulertzen du euskara eta beraz ulertzen du euskaraz egiten den kultura: musika, liburuak, egunkariak, telebista... Besteak ez. Baina euskara dakienak gaztelaniazko mundua ere ezagutzen du: musika... Hizkuntza bat baino gehiago jakiteak ikuspegi gehiago ematen dizkigu.

Gertutasuna sortzen du:

- Niretzat gertukoak diren hizkuntzak eta kulturak dakizkien beste norbaitekin nagoenean, gertutasuna sortzea errazagoa da. Adibidez: Rok musikaren oso zalea naiz. Beste zale batzuekin gertuko harremana sortzea errazagoa da rok musika gustatzen ez zaienekin baino. Hizkuntzak ere laguntzen du horretan: dakitenekin gertutasuna sortzea errazagoa da nire kultura eta bizimodua gertu dituen norbait delako.

Integratzen laguntzen du:

- Hemendik kanpo zoaz lanera. Adibidez, Alemaniara. Alemaniera jakiteak lana aurkitzen lagunduko dizu... baina lagunduko al dizu bertakoekin harremanetan jartzen?
- Urte gutxitan kanpotik jende asko etorri da Euskal Herrira, munduko hainbat lekutatik... Gaztelania guztiek ikasten dute, baina euskara ikasteak balio al du zerbaitetarako? Nola hartzen dugu guk kanpotar bat euskara egiten ahalegintzen dela konturatzean? Sortzen al du gertutasuna?

Beste batzuk

- Bidaiatzeko
- Hizkuntza gehiago ikasteko erraztasuna
- Mundua ikusteko moduak
- ...

5.5.– Animaliak edo janaria aukeratzen:

Taldeka jarriko ditugu.

Denon artean zerrenda bat egingo dugu:

- A aukera: animaliak. Etxe batean zein animalia bizi daitezke? Zein adibide ezagutzen ditugu? Txakurrak, katuak...
- B aukera: frutak. Meriendatzeko zein fruta dugu gustukoa? Sagarrak, laranjak...

Talde bakoitzak animalia bat edo fruta bat aukeratu behar du:

- Etxe berean bizi gara guztiok. Erabaki dugu animalia bat ekarriko dugula. Zein aukeratuko genuke? Zergatik?
- Meriendatzeko fruta ezberdinak ditugu aukeran. Zein aukeratuko genuke? Zergatik?

Talde bakoitzak zein aukeratu duen esango du. Bi taldek gauza bera aukeratu badute, zozketaz talde bati emango zaio hori eta besteak beste bat aukeratu beharko du.

Ondoren, talde bakoitzak tarte bat izango du berak aukeratutakoa besteena baino aukera hobea zergatik den lantzeko.

Jarraian eztabaidarekin hasiko gara: talde bakoitzak bere argumentuak eman, besteen argumentuei aurre egin...

Bi aukera:

- Irakasleak dinamizatu dezake.
- Ikasle bat zutik jar daiteke eta berak dinamizatu irakaslearen laguntzaz.

Oharra: animaliekin eta frutekin bezala, beste edozein gauzekin ere egin daitezke modu honetako eztabaidak.

5.6.– Zergatik geratu zarete etxean?

- Arbelean esaldi bat idatziko dugu: *Horregatik guztiagatik erabaki dugu etxean geratzea.*
- Lehenengo urratsa: bikoteka jarriko ditugu
 - o Bikote bakoitzak landu beharko du esaldi horren atzean dagoena. Zergatik erabaki dute etxean geratzea? Zergatik dago hori justifikatua? Zergatik da zentzuzkoa?
 - o Bikote bakoitzak bere argudioak landuko ditu. Idatzi ditzakete.
- Bigarren urratsa: seinaka jarriko ditugu (hiru bikote elkartzuz)
 - o Bikote bakoitzak bere argudioak azalduko dizkiete besteei
 - o Denen artean argudio batzuk adostuko dituzte

- Ezin dute idatzi. Hau erabat ahoz izatea nahi dugu.
- Hirugarren urratsa: talde osoan argudioak aurkezten.
 - Talde bateko bat erdian jarriko da. Eta esango du: Baina benetan badituzue argudio egokiak etxean geratzea justifikatzeko?
 - Talde batekoei galdezka hasiko zaie. Aurrena bati, gero beste bati... Zergatik geratu zarete ba? Horregatik bakarrik? Eta nahikoa arrazoi iruditzen zaizue?... (Irakasleak eta beste taldekideek lagunduko diote hainbat galdera sortzen).

5.7.- Argudio lehiaketa

- Argudioei indartzeko edo argudioei hasiera emateko esaldi batzuk idatziko ditugu arbelean:
 - Eta gainera...
 - Are gehiago...
 - Nik erantsiko nioke...
 - Kontuan izan...
 - Ez hori bakarrik...
 - Hori gutxi balitz...
 - Eta zalantzaren bat balego...
 - ...
- Taldearekin errepasatuko ditugu eta gehiago bururatzen zaizkien galdetu.
- Binaka edo hirunaka jarriko ditugu.
- Kutxa batean, papertxoetan idatzita, hainbat gai izango ditugu.
- Taldetxo bakoitzak papertxo bat aterako du. Hori izango da bere gaia.
- Hiru-lau minutu izango dituzte argudioak prestatzeko.
- Idazten uztea edo ez uztea irakaslearen esku dago. Agian errazagoa da idazten utzita.
- Ondoren arbelean beste esaldi batzuk idatziko ditugu. Esaldi hauek argudioak zalantzan jartzeko edo argudio gehiago eskatzeko balio dute.
 - Zergatik ba?
 - Ez dakit ba...

- Eta ziur zaude?
 - Argi daukazu?
 - Zalantza sortzen zait
 - Baina agian ez da horrela
 - ...
-
- Talde bat erdian jarriko da. Beraien gaia zein den esango dute. Beste gelakide batek (boluntarioa edo guk aukeratuta), galderak egin behar dizkie: Eta zergatik diozue...?
 - Taldekideek erantzun behar dute eta galderak egiten dituenak arbeletik galderak aukeratu.
 - Argudioak idatzi badituzte: taldekide batek ez du erantzunetan parte hartuko baina orria eskuan izango du. Besteek erantzun behar dute. Erantzunez ez badira gogoratzen, papera duenak xuxurlatuko die eta beraiek erantzungo dute.
 - Galde batekin amaituko dugu: gelakideari galdetuko diogu...Konbentzitu zaituzte?
 - Txandaka hainbat talderekin berdina egingo dugu.
-
- Gai adibideak (umore puntu bat izan dezaketenak proposatzen dira, baina serioagoak ere izan daitezke edo egunkarietako berrietatik ateratakoak).
 - Udako oporrak luzeegiak dira
 - Asteburuak aspergarriak dira
 - Musika klasikoa da hoberena, atseginena eta modernoena
 - Barakaldok izan behar luke Euskadiko hiriburua
 - Gure gela da ikastetxeko gela hoberena
 - Gure tutorea da ikastetxeko irakaslerik hoberena
 - ...

Oharra: ikasleen gaitasunaren arabera argudio sinpleagoak izan daitezke, idatzitakoa gehiago erabiliz...

6.- Instrukzioak

6.1.- Jolasak moldatzen

- Karta jolas bat azalduko diegu (kalean egiteko jolasen bat ere izan daiteke horretarako aukera baldin badugu). Arauak idatziz ere emango dizkiegu.
- Karta saio bat egingo dugu eta baldintza bakarra izango da euskaraz aritu behar dutela.
- Lehenengo saioa horretan eman dezakegu: taldeka banatu eta saio motz bat egin, taldeak nahastu eta beste bat egin...

- Bigarren saioan taldeka banatuko ditugu berriro.
- Talde bakoitzak jolasean bi aldaketa egin behar ditu (gutxienez). Nahi dituzten aldaketak.
- Ondoren, zozketa egingo dugu eta dagokion taldeko kideek jolas berria azalduko dute. Irakasleek eta beste taldeetako kideek galderak egingo dizkiete.
- Karta saio bat egingo dugu modu horretan.

- Karta saioa amaitzean beste talde batek azalduko du bere modua. Guztiek azalduko dute eta guztietara jolastuko dugu. Seguruenik egun bat baino gehiago beharko dira horretarako.
- Azken saioaren ondoren dinamikari buruz ere hitz egingo dugu beraiekin: zer moduz aritu dira? Gustatu zaie? Moldaketak egitea erraza da? Hobetzen du jolasa?...

- Eredua ematea: gure azalpena izango dute eta testua idatziz ere bai. Horrek lagunduko die beraien moldaketak azaltzerakoan.

- Oharra: taldeka daudenean euskaraz aritu behar dutela oso argi izan behar dute (gogorarazi behar zaie) eta irakaslea adi egongo da gaztelaniarako joera sumatzen badu dagokion taldera hurbildu eta elkarrizketak euskarara bideratzeko. Irakaslea ez da talde batean jolasten arituko, baina taldez talde ibiliko da galderak eginaz, animatuz eta elkarrizketak euskaraz direla bermatuz.

-

6.2.- Konfiantza jolasak

- Bi Konfiantza jolas egingo ditugu
- Bat: hiru ilara
 - o Hiru ilara egingo ditugu patioan.
 - o Ilarako azkenekoak ezik beste guztiek begiak itxita izango dituzte.
 - o Patioko puntu batetik eskolako beste puntu bateraino iritsi behar dute (ez dadila zailegia izan)
 - o Horretarako, azkena doanak aurretik doazenei (bereziki aurrena doanari) esan behar dio zer egin behar duen: zuzen, ezkerretara, geldu, pauso bat gehiago...
 - o Lortuko al dute bost minututan iristea?
- Bi: bikoteka
 - o Gimnasioan zirkuitu bat prestatuko dugu: oztopoak, gainetik pasa beharrekoak...
 - o Bikoteka, batek begiak itxita izango ditu. Besteak azalpenak eman behar dizkio. Ondoan jarriko da, gertu, eta azalpenak emanaz besteak zirkuitua egin behar du. Lortuko al dute bost minututan egitea?
 - o Aukera bat: azalpenak eman beharrean begiak irekiak dituenak bestearen gainean joan daiteke (zaldia eta zalduna). Zaldunak azalpenak eman behar ditu eta biok iritsi behar dute.
- Oharra: komeni da instrukzioak gelan lantzea eta gero ateratzea patioan.

6.3– Hitz debekatuak edo tabu jolasa:

- Taldetxoak egingo ditugu
- Taldetxo bakoitzak gai bat izango du eta besteei azaldu beharko diete zerbait nola egin daitekeen
- Hainbat gai idatziz edukiko dira papertxoetan eta papertxo bana hartu beharko dute taldeek
- Dagozkien instrukzioak prestatu beharko dituzte

- Baina hitz klabe batzuk ezingo dituzte erabili

- Talde bakoitzak bere azalpenak prestatuko ditu. Idatz dezakete.

- Ondoren taldeka azalpenak emango dituzte (idatzitakoa ezin dute erabili):
 - o Guk azalduko dizuegu... Eta dagokien gaia zein den esango dute.
 - o Azalpenak ematen hasiko dira.
 - o Gelakideek galderak egingo dizkiete ulertzen ez dena osatu dezaten.

- Gai adibideak eta hitz klabeak:
 - o Arrautza frijitua nola prestatu: olio, arrautza, zartagina.
 - o Barakaldotik Donostiara garraio publikoan nola joan: autobusa, metroa, trena, geltokia
 - o ...